



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2024ko URTARRILAREN 30AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2024ko urtarrilaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Unai Sorarrain Urruzola Urruzola
	Nagore Arizeta Garmendia
	Jose M <sup>a</sup> Aranzabe
	Ana Agesta Echecolonea
	Gillermo Otegi Zubillaga

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA:

Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
- ✓ 2023ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2024 ekitaldirako udal aurrekontuaren espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak aurkezturiko, 2023 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 6. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak eginiko 2024 ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 7. Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko, 2023 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Herri eskolak eginiko 2024 ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 9. XIX Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale-ri" 2024 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**
- 10. Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen 3. Obra ziuertagiriaren**



ALKIZAKO UDALA

onespena.

11. Erretore etxeko gaur egungo argi kontagailuak kentzea, igogailuaren kontagailua bakarrik utziz, eraikin osoa zerbitzatzeko lanen esleipena.

12. M.J.O. eta U.O. andreak eginiko eskaeraren azterketa.

13. Beste batzuk

14. Mozioak, erreguak eta galderak.

14.1. EHPM-MPEH MOZIOA: Gutxieneko pentsioa 1080.

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2023ko abenduaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 01/2023tik 02/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IZFE	60,50
IZFE	38,66
DIONISIO ORMAZABAL	18,63
KIROLZER	42,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	82,28
SOLRED	74,50
RECAMBIOS IBARRA	15,46
OSCAR GALINDO	133,10



ALKIZAKO UDALA

OSCAR GALINDO	786,50
ARGITU	316,85
CALPARSORO INDUSTRIAL	100,02
NATURTZAINDIA	9.000,00
OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK	8.469,03
FORESTAL SANCHEZ	16.698,00
EBA ERKIZIA	874,62
UDALATX	337,95
GRENKE	214,17
GUREAK	5,55
GOIENER	19,55
GOIENER	2,85
ULAHI	648,57
IZADI	165,77
IZADI	165,77
IZADI	205,70
CALCOSA	84,70
EGIMENDI	40,14
ORANGE	35,27

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **38.636,14** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2024 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2024 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.



ALKIZAKO UDALA

- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2024ko urtarrilaren 11an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA.**- Alkizako Udaleko 2024 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea **756.228,80** eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

<b>SARRERAK</b>	<b>756.228,80€</b>
<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	73.700,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	6.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	76.525,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	418.050,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	10.300,00
<b>B) KAPITAL-ERAGIKETAK</b>	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktiboak	171.653,80
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00
	0,00

<b>GASTUAK</b>	<b>756.228,80€</b>
<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	



ALKIZAKO UDALA

1. Kap. Pertsonal gastuak	254.600,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	182.660,00
3. Kap. Finantza gastuak	7.100,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	88.518,80
<b>B) KAPITAL-ERAGIKETAK</b>	
6. Kap. Inbertsio errealak	198.350,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	25.000,00

BIGARRENA.- 2024 aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO, 2023 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu dituztela, 2023 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2023 urtean emandako diru-laguntzarari dagozkion kontu zuriketa onestea.



ALKIZAKO UDALA

### **SEIGARREN PUNTUA**

## **ALKIZAKO BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO 2024 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten diote.

Ikusirik aipaturiko ekintza horiek, ekonomikoki laguntzeko, 2024 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidari Beleburupe Guraso elkarteari 800,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Ikusita 2023-2024 ikasturtean eskola kirola programa martxan jarri dela, horretarako ere 1.036,37 eurotako diru-laguntza eskaera egiten diete Alkizako udalari, osatzeko jarduera horrek duen kostua Guraso Elkarteari zorrik ez sortzeko.

Ikusita eskola kirola programa finantzatzen laguntzeko 2024 urteko udal aurrekontuetako 481.341.00.01 partidari nahiko diru aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Beleburupe guraso elkarteari 800,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.

**BIGARRENA:** 800,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2024 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren kontura.

**HIRUGARRENA:** Beleburupe guraso elkarteari 1.036,37 eurotako diru-laguntza ematea, 2023-2024 ikasturtean eskola kirola programak guraso Elkarteari zorrik ez sortzeko.

**LAUGARRENA:** 1.036,37 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2024 urteko udal aurrekontuetako 481.341.00.01 partidaren kontura.

**BOSTGARRENA:** Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.



ALKIZAKO UDALA

SEIGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRI ESKOLAK AURKEZTURIKO, 2023 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak aurkeztu dituela, 2023 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko 2023 urtean emandako diru-laguntzari dagokion kontu zuriketa onestea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO 2024 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik, Alkizako Herri Eskolaren funtzionamendu egokia ahalbideratzeko, eginiko diru-laguntza eskaera, bertan, ikasturtean zehar egingo dituzten egitasmoen berri ematen dutelarik.

Ikusirik, Udal aurrekontuetako 481.320.00.01 kontu sailan 1.000,00 euro aurreikusi direla, Alkizako Herri Eskolarentzat.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.- 1.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2024 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.



ALKIZAKO UDALA

**HIRUGARRENA.-** Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **XIX AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MAEMORIALA-ri" 2024 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, jakinarazi duela, datorren martxoaren 10ean XIX. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memoriala" egiteko asmoa duela. Aipaturiko memoriala antolatzeke, Udaletxeek egin behar duten ekarpena 23.200,00 euro izango dela jakitera ematen dute, Alkizako Udalarari, 2.352,25 eurotako ekarpena egitea eskatuz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikoko Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 2.352,25 eurotako ekarpena burutzea 2024eko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 2.352,25 eurotako gastua onestea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANEN 3. OBRA ZIURTAGIRIAREN ONESPENA**

Ikusita Alkizako udalak, 2023ko irailaren 12an egindako udalbatzarrean, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak esleitu zizkiola OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.ri.

Ikusirik, aipaturiko lanak exekutatzeko ari direla.

Ikusirik egindako lanen ondorioz, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k 3. Obra ziurtagiria aurkeztu duela.





ALKIZAKO UDALA

3. Obra ziurtagiria: 16.973,98 euro.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriei, obra zuzendariak, hau da, Eba Erkizia udal aholkulari teknikoak bere on iritzia eman diela.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriak ordaintzeko 2023ko udal aurrekontuetan badagoela adina diru kopuru.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k aurkezturiko, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen ondorioz, 3. Obra ziurtagiria onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. Ondorengoak direlarik:

3. Obra ziurtagiria: 16.973,98 euro.

BIGARRENA: 16.973,98 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 2023ko udal aurrekontuetako 1 0000 622.920.00.01 kontu sailaren kontura egin dadin agintzea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

#### **M.J.O. ETA U.O. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusita Maria Jesus Ormazabal eta Udane Ormazabal andreak eginiko eskaera, non, Alkizako Arana bailaran dagoen Sustrai etxea, bi bizitza dituen etxeak, euren jabetzakoa dena, "eraikinaren jabetza horizontalaren araubideko konfigurazioa" egin beharrean gertatu direla. Horretarako udal baimena eskaera egiten dute.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Maria Jesus Ormazabal andreari eta Udane Ormazabal andreari baimena ematea, Alkizako Arana bailaran dagoen "Sustrai etxea", eraikina jabetza horizontaleko erregimenean konfiguratzeko, bertan bi etxebizitza izanik.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Maria Jesus Ormazabal eta Udane Ormazabal andreei ematea.

**HAMAHIRUGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

**13.1.ERRETORE ETXEKO GAUR EGUNGO ARGÍ KONTAGAILUAK  
BERTAN BEHERA UTZI, ETA KONTAGAILU BAT BAKARRIK UZTEA  
ERAIKIN OSOAN ZERBITZUA EMATEKO LANEN ESLEIPENA**

Alkizako Udalak, beharrezkoa du, Erretore etxean gaur egun dauden argi kontagailuak bertan behera utzi eta kontagailu bat bakarrik jartzea eraikin osoan zerbitzua emateko lanak egiteko kontratua esleitzea.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Obra kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o*



ALKIZAKO UDALA

*conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK enpresari, Erretore etxean gaur egun dauden argi kontagailuak bertan behera utzi eta kontagailu bat bakarrik jartzea eraikin osoan zerbitzua emateko lanak egiteko kontratua esleitzea 2.459,86€ (BEZa kanpo), 1.0000.682.920.00.01 kontu sailaren kontura "Erretore etxea inbertsioak".

### **HAMALAU GARREN PUNTUA** **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

#### **14.1.EHPM-MPEH MOZIOA: GUTXIENENKO PENTSIOA 1080**

Udal taldeak, aho batez, ez du babesten aurkezturiko mozio hau.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.17 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

